

HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO FORU PLANA

2024
2027





HERRITARREN ETA
GIZARTEAREN
PARTAIDETZARAKO
FORU PLANA

2024 - 2027





Aurkibidea →

Sarrera

/04

Planaren testuingurua

/07

Plana egiteko erabilitako metodologia

/24

Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetzari buruzko diagnostikoa

/39

Ikuspegia, helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak

/42

Aurreikusitako jarduerak

/46

Planaren gobernantza

/67



1.

Sarrera



Herritarren partaidetzak funtsezko lekua du Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran, herritarrek lagun dezaten politika publikoak zehazten eta politika horiek gauzatzen edo kudeatzen diren moduak definitzen, atondutako bideen eta prozeduren garapenaren bitartez.

Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide luzea du partaidetza-arloan. Parte hartzeko eredu propioa garatzeko aukera eman dion ibilbidea da, partaidetza ulertzeko eta foru-kudeaketan txertatzeko modu bat. Ildo horretan, adibide gisa jar ditzakegu Aldundiak gizarte zibil antolatuekin lankidetzan aritzeko gaur egun dituen mahai eta espazio ugariak, Aldundiaren beraren kudeaketa-sistemaren parte direnak. Bizkaiko gizartearekin **harremanetan izateko berezko modu bat. Entzuteko eta berba egiteko modu bat.** Baina, batez ere, **lankidetzan aritzeko** modu propio bat, Bizkaia hobe baten eraikuntzan pertsonen inplikazioa eta ekarpena bultzatzen eta dinamizatzen dituen.

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2024-2027ko Foru Plan honek **beste urrats bat eman nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak parte-hartzearekin duen konpromisoan.**

Konpromisoa Bizkaia Denontzat Agintaldi Planean dago jasota, "Bizkaia Aldundi indartsu, gertu eta moderno batekin" ardatzaren barruan, eta bertan berariaz ezartzen da herritarren partaidetzarako espazioak eta dinamikak sustatzeko helburua.

Horretarako, Planak **17 jarduera** biltzen ditu **Bizkaian partaidetza gehiago eta hobea sustatzera eta bultzatzera bideratuak.**

Partaidetza esanguratsua maila kuantitatiboan eta kualitatiboan, Bizkaiko kolektibo, udalerrri eta eskualde guztietara helduko dena, Aldundiaren kudeaketa-dinamiketan erabat txertatuta egongo dena, eta Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiten jarraitzeko ezinbestekoak diren politika eta zerbitzu publikoei adimen kolektiboaren, adostasunaren, lankidetzaren eta konpromisoaren balio garrantzitsua emango diena.



sustatu,
↑ bultzatu
partaidetza +



- 2.01 Partaidetzaren kontzeptua, balioa eta alderdiak
- 2.02 Partaidetza, Bizkaiko gobernantza publikoaren funtsezko tresna
- 2.03 Aurrekariak. Parte hartzeko aurreko foru-planak eta herritarren eta gizartearen partaidetza sustatzearekin lotutako foru-plangintzako beste tresna batzuk
- 2.04 Partaidetza-arloko joerak

2


• Planaren testuingurua

2.01- Partaidetzaren kontzeptua, balioa eta alderdiak

DEFINIZIOA

Herritarren partaidetza **ezinbesteko tresna da Gobernantza Aurreratuaren eredu**an eta funtsezko elementua da politika publikoak diseinatu, ezarri eta kudeatzeko.

Eskubide bat da, eta horri esker gizarteko hainbat sektoretako pertsonak eta erakundeek **helaraz diezazkiekete euren ahotsa eta proposamenak gobernu-organoei**.



PARTAIDETZAK EKARTZEN DITUEN ONURAK

Herritarren partaidetzak onura ugari ekartzen ditu:

1.

Demokraziaren kalitatea hobetzen du.

Herritarren partaidetza beharrezkoa da demokrazia eratze-ko. Horregatik, funtsezkoa da gobernarien kontrola errazteko, herritarren lehentasunak hobeto transmititzeko, gatazkak leuntzeko, akordioak ahalbidetzeko, eta erabaki politikoak hobeto hartzeko. Horrez gain, partaidetzak sustatzen du gai politikoez informatzeko eta gainerako pertsonekin lankidetzan aritzeko interes handiagoa duen herritar-mota bat, desberdinak direnekin errespetu handiagoa duena, eta horrek pertsonen arteko lotura sozialak indartzen ditu eta kulturen arteko ulermena sustatzen du.

2.

Arau, plan, programa eta zerbitzu publiko hobeak eratzeko aukera ematen du

Herritarren partaidetzakekintza politikoa eta administratiboaren eraginkortasun handiagoa bultzatzen du, herritarrek lagun dezaten politika publikoak zehazten eta politika horiek gauzatzen edo kudeatzen diren moduak zehazten, atondutako bideak eta prozedurak garatuz. Izan ere, herritarren ezagutzek, irizpideek eta esperientziak adierazten duen aberastasun guztia txertatzen du politika publikoetan.

3.

Harreman-gobernu hurbilagoan aurrera egiteko aukera ematen du.

Partaidetzaren bidez gobernuak hobeto ezagutu ditzake herritarren premiak eta gertutik eta eraginkortasunez bidera ditzake politika publikoak. Gainera, herritarren eta administrazioaren artean harreman sakonagoa ezartzen laguntzen du.

4.

Adostasuna eta lankidetzak bultzatzen dituen tresna da.

Parte hartzeak elkarrizketa dakar. Eta elkarrizketaren bidez, adostasunak lortzea eta konpromisoa eta lankidetzak sustatzea ahalbidetzen duten elkarguneak aurki daitezke.

5.

Herritar konprometituagoak eta erantzukidunagoak sortzen ditu.

Gure gizarteak erronka sistemiko eta koiuntural handiei egin behar die aurre. Funtsezkoa da herritarrak tokiko eta maila globaleko arazoez jabetzeaz gain (adibidez, munduko larrialdi klimatikoa), benetako kontzientzia hartzea eta kasu askotan errazak izango ez diren eta gizarte osoaren inplikazioa eskatuko duten irtenbideen identifikazioan eta aplikazioan inplikatzeko eta konpromisoa hartzea.

PARTAIDETZAREN ALDERDIAK ETA KUDEAKETA PUBLIKOAN DITUEN INPLIKAZIOAK

Partaidetzaren **4** dimentsio handi
aipatu ditzakegu. Horietako bakoitzak
inplikazioak ditu kudeaketa publikoan:

Herritarren
eskubidea

1

Zeharkako
kudeaketa
printzipioa

3

Gizarte-balioa
sortzen duen
elementua

2

Kudeaketa-
eremua

4

10

Herritarren eskubide gisa, erakunde publikoek eskubide hori benetan gauzaten ari dela bermatu behar dute.

Gizarte-balioa sortzen duen elementu gisa, erakundeek partaidetza sustatu eta duen potentzial guztia aprobetxatu behar dute.



Zeharkako kudeaketa-elementu gisa, funtsezkoa da herritarren eta gizartearen partaidetza erakundeen antolamendu-kulturan txertatzea.

Azkenik, ezin dugu ahaztu partaidetza **kudeaketa-eremua** ere badela; beraz, erakundeek eraginkortasunaren, efizientziaren eta gardentasunaren printzipioen arabera kudeatu behar dute partaidetza.

2.02- Partaidetza, Bizkaiko gobernantza publikoaren funtsezko tresna

Bizkaiko Foru Aldundian ziur gaude parte-hartzea ezinbestekoa dela, arrazoi askorengatik. Besteak beste, honako arrazoi hauek nabarmentzen dira: gizarte zibila sektore publikoaren zereginen inplikatzeari errazten dio; gizarte-koherentsia bultzatzen duela; tolerantzia, integrazioa, elkartzasuna eta berdintasuna bezalako balioak defendatu, praktikan jarri eta indartzen ditu; eta ekintza politiko eta administratiboaren eraginkortasun eta legitimitate handiagoa bultzatzen du, Bizkaiko herritarren ezagutzek, irizpideek eta esperientziak adierazten duten aberastasun guztia txertatzen baitu.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PARTAIDETZA-EREDUA

Bizkaiko Foru Aldundiak **ibilbide luzea du partaidetza-arloan, eta, horri esker, eredu propioa eratu du**, partaidetza ulertzeko eta foru-kudeaketan txertatzeko modu bat, une oro Bizkaiko gizartearen errealitatera egokituta.

Eredu hori 6 printzipiotan oinarritzen da, gure herritarren eta Bizkaiko eragileen eskutik lan egiteko aukera ahalik eta gehien aprobetxatzea ahalbidetzen dutenak:

Herritarren partaidetza ezinbesteko tresna da Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernantzaren eredian eta funtsezko elementua politika publikoak diseinatu, ezarri eta kudeatzeko.

Herritarrek Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketan parte hartzeko mekanismoek lagundu egiten dute aniztasun soziala integratzen, lurraldean bizi diren pertsonen interesak agenda publikoan sartzen, herritarrak banaka inplikatzeko eta gizarte zibilaren funtzioa indartzen.

Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrek parte hartzeko duen ereduak beharrezko baliabideak ematen ditu herritarrek eta lurraldeko eragileek sarbidea izan dezaten partaidetzarako bultzatu diren espazio, kanal eta prozesuetara, eta gure lurraldean elkarrekin bizi diren iritziz eta ikuspegi anitzaren presentzia bermatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren partaidetzarako duen ereduaren barruan aurreikusitako organo eta espazio formalek zeregin nabarmena dute, langai duten sektoreei buruzko ikuspegi kualifikatua ematen baitute.

Partaidetza-organoen eta -espazioen osagarri izan daitezke beste partaidetza-ekimen espezifiko batzuk, zeintzuk gizarte-eztabaidak elikatzea ahalbidetzen duten eta iritzien eta proposamenen ordezkartza handiagoa eta aberastasun handiagoa lortzen laguntzen duten partaidetza-prozesuetan eratzen diren.

Bizkaiko Foru Aldundia da, bere osotasunean, ordenamendu juridikoaren arabera dagozkion eskumenen titularra, bai eta hartzen dituen neurrien eta bere eskumenak gauzatzeko eta kudeatzeko moduaren arduraduna ere.

Horrek esan nahi du, egoera jakin batzuetan, zentzu negatiboan ebatzi ahal izango dituela herritarrek parte hartzeko prozesuak egiteko ekimenak edo horietatik eratorritako proposamenak. Baina beti modu arrazoituan egin behar du, jasotako proposamenak ez onartzeko arrazoiak zehaztuta.

2.03- Aurrekariak.

Parte hartzeko aurreko foru-planak eta herritarren eta gizartearen partaidetza sustatzearekin lotutako foru-plangintzako beste tresna batzuk

Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2024-2027ko Foru Plan hau **Bizkaiko Foru Aldundiak landu duen hirugarren partaidetza-plana da.**


Baina, horrelako plangintza-tresnak eduki baino lehen ere, Aldundiak aurreko ibilbide garrantzitsua zuen, batez ere, lurraldeko funtsezko eragileen partaidetzari dagokionez, parte-hartzea eta lankidetzari uztartzen zituzten espazioen bidez. Organo eta espazio horietako batzuk jardunbide egoki gisa ebaluatu eta idenfikatu zituen ELGAK "Gobernu irekiko erreformak Bizkaia hurbilago, modernoago eta arduratsuago baterako" proiektuaren esparruan.

PARTAIDETZARAKO I. PLANA (2018-2019)


Partaidetzarako I. Planak 2018. eta 2019. urteak hartzen zituen barne eta, gainera, horrekin lotutako beste plangintza-tresna batzuk izan zituen osagarri, hala nola “Bizkaia Irekia, Gobernu Irekiaren Ekintza Plana 2017-2019”, Bizkaiko gobernu irekia sakontzeko ekimen globala, parte hartzeko arloan 2 konpromiso espezifiko zituena (herritarren funtsezko partaidetza-eredua garatzea eta gizonen eta emakumeen berdintasun-politiketan gizartearen parte-hartzea sustatzea); eta “OGP Euskadi 2018- 2020” erakundeen arteko ekimena, Euskadiko gainerako erakunde publikoekin elkarlanean diseinatua eta inplementatua, non 5

konpromisok zuzeneko lotura baizuten herritarren partaidetzarekin.

2018-2019 Partaidetza Planak 5 helburu espezifiko eta 13 ekintza biltzen zituen 2 urteetan gauzatzeko. Plana ebaluatzeko azken txostenaren arabera, planaren gauzatze-maila ertaina eta handia izan zen, bai helburuen mailan (helburuen % 40 betetze-maila handiarekin eta % 60 betetze-maila ertainarekin), bai aurreikusitako jardueren mailan (helburuen % 38 betetze-maila handiarekin edo oso handiarekin, % 54 betetze-maila ertainarekin eta ekintza bakar bat - % 8 - betetze-maila txikiarekin).



Helburuen betetze-maila




Aurreikusitako jardueren gauzatze-maila


PARTAIDETZARAKO II. PLANA (2020-2023)

Planak 4 helburu estrategiko ezarri zituen (Pertsona gehiago parte-hartzera hurbiltzea, gure gizartean partaidetzaren kultura indartuz; Gure Partaidetza Ereduan sakontzen jarraitzea, pertsona eta kolektibo guztiei ahotsa ematea eta entzutea eta adostasun zabalak eraikitzea errazten duen eredu, eta, aldi berean, erakundearen eskumen-erantzukizunari eusten duena; Aldundiko langileak parte-hartzearen elementu bultzatzaile izan daitezen beharrezkoak diren prestakuntza eta metodologiaren hornidura areagotzea; eta Bizkaiko toki-erakundeek bultzatzen dituzten herritarren partaidetzarako jarduerari Aldundiak ematen dien laguntza indartzea), eta 14 jarduera biltzen zituen, 4 jarduera-ildotan bilduta, Bizkaian parte-hartze handiagoa eta hobeagoa sustatzera eta bultzatzera bideratuak.

Planean aurreikusitako 14 jardueretatik, 11 jarduerak (% 79) betetze-maila handia lortu zuten eta 3k (% 21) betetze-maila ertaina. Ez zen egon betetze-maila txikia lortu zuen jarduerarik ezta garatu ez zenik ere.



14
aurreikusitako
jarduera



Honako hauek aipa ditzakegu II. Plan honen jarduera nabarmenen artean:

Eztabaida-foroak garatzea, parte hartzeko modu kualifikatu eta berritzaile gisa.

Partaidetzarako Atari berri bat eratzea, askoz osoagoa eta intuitiboagoa, Bizkaiko edozein herritarrek parte hartzeko duen eskubidea erraz gauzatzeko aukera ematen duena.

Dirulaguntza-programa bat abian jartzea, herritarrek eta gizarteak parte hartzeko Bizkaiko toki-erakundeek sustatutako proiektuetarako.



Planean aurreikusitako jardueraz gain, lurraldean Herri Ekimen Arauemailea arautzen duen Foru Araua (urtarrilaren 18ko 1/2023 Foru Araua) prestatzen eta onartzen aurrera egin zen.

2.04- Partaidetza-arloko joerak

Joera hauek identifika ditzakegu partaidetzari dagokionez:

HERRITARREN ZUZENeko PARTAIDETZA GEHIAGO

Informazio- eta komunikazio-teknologiak orokortu izanak izugarri erraztu du herritarren zuzeneko partaidetza. Ildo horretan, oso erraza eta eraginkorra da tresna digitalak erabiltzea, hala nola:

Horrelako tresnak Partaidetzarako Atariarekin lotu ohi dira. Atari horrek aukera ematen du erakunde batek herritarren parte-hartzearen arloan egiten duen jarduera ezagutzeko eta parte hartzeko eskubidea gauzatzeko kanal eta ekimen desberdinetara sartzeko.

- 1 Eztabaida-foro irekiak.
- 2 Iritzi-inkestak.
Iritzia emateko eta proposamenak egiteko formulario kualitatiboak.
- 3

Tresna horiek herritarren partaidetza zuzena eta irekia ahalbidetzen dute, herritarrek parte hartzeko gonbidapen bidezko beste prozesu batzuek osa dezaketena. Gonbidapen bidezko prozesuok honako hiru helburu hauetakoren bat eduki ohi dute:



1

Partaidetza-prozesuaren izaera dela-eta, bereziki garrantzitsutzat jotzen ditugun kolektiboen ekarpenak (iritziak eta proposamenak) jasotzea.



2

Partaidetzatik aldenduago egon ohi diren kolektiboen (berariaz gonbidatzen ez baditugu, parte hartuko ez luketenak) ekarpenak (iritziak eta proposamenak) jasotzea.



3

Gehiengoaren iritzi eta proposamenetan kualitatiboki sakontzea.

PARTAIDETZA-PROZESU INTEGRALAGOAK

Partaidetza-prozesuak gero eta integralagoak izaten dira. Horrek esan nahi du:

Nahitaez parte hartzeko eta borondatez parte hartzeko azpiprozesuak barne hartzen dituztela.

Herritarren eta eragileen parte-hartzea barne hartzen dituztela.

“Kanal anitzekoak” direla, xede-publiko guztietara iristeko, bakoitzarentzat egokiena den kanalarekin, betiere "partaidetzan eraginkortasuna bilatzearen" printzipioaren arabera

ZERBITZU PUBLIKOEN DEFINIZIOAREKIN, BIRDEFINIZIOAREKIN ETA HOBEKUNTZAREKIN LOTUTAKO PARTAIDETZA-PROZESU GEHIAGO, ERABILTZAILEAREN ESPERIENTZIA HOBEA BILATZEN DITUZTENAK

Parte hartzeko diseinuaz hitz egin ohi da zerbitzu bat (publikoa edo pribatua) diseinatzeko, berriz diseinatzeko edo hobetzeko jarraitzen den ikuspegia aipatzeko, parte hartzen duten alde guztien parte- hartzearen bidez, diseinatutako zerbitzua erabiliko duten pertsonen beharretara eta itxaropenetara egokitzen dela ziurtatzen laguntzeko. Prozesu horietan parte hartu nahi duten alderdiak asko izan daitezke (zerbitzuaz arduratzen den unitateko langileak, gaian adituak diren pertsonak...), baina gomendagarria da beti zerbitzua erabiliko duten pertsonak sartzea.

Prozesu horiek hainbat formaturen bitartez gara daitezke, eta esparru publikoan honako formula hauek erabili ohi dira: herritarren laborategiak, berrikuntza irekiko laborategiak, erabiltzailearen esperientzia- probak... Edozelan ere, formatu horiek guztiek elementu komun bat dute: “diseinutik partaidetza- prozesuak” izatea.

EZTABAIDA BIDEZKO PARTAIDETZA PIXKANAKA SARTZEA

Gizarte garaikide guztiok erronka gero eta konplexuagoi eta elkarri lotuagoi erantzuteko premiari egin behar diogu aurre. Maiz, erronka horiek aldaketa sozio-demografiko, digital-ekonomiko eta energetiko- klimatiko handiekin daude lotuta. Erronka horien aurrean ez dago irtenbide errazik eta berehalakorik; aitzitik, lortu nahi diren helburuetarantz aurrera egiteko, denboran eutsitako lan-prozesu gisa tratatu behar dira.

Testuinguru horretan, herritarren partaidetzarako metodorik berritzaileenetako bat da eztabaida- partaidetza; izan ere, garatzen den ezaugarriengatik eta oinarritzen den printzipioengatik, arazo jakin baten aurrean emaitza herritarren gomendio-irizpen gisa lortzeko aukera ematen du, baina irismenari buruzko behar besteko hausnarketa batean oinarrituta eta behar bezala informatuta, jatorrian antagonikoak ere izan daitezkeen hainbat ikuspuntutatik abiatuta. Ildo horretan, eztabaida-prozesuak diseinatuta daude parte-hartzaileei ikasteko, hausnartzeko eta deliberatzeko denbora emateko, bai eta gaian espezializatutako teknikariek, mundu akademiko eta zientifikoko ordezkariak, jorratzen den gaiarekin zerikusia duten kausa jakin batzuen defentsa-taldeak eta beste alderdi interesdun batzuek eskainitako ebidentzia eta esperientzia sorta zabala eskuratzeko ere.

Kontzeptu horren barruan, izen desberdinak dituzten hainbat ekimen garatzen dira (Eztabaida Foroa, Eztabaida Epaimahaia, Eztabaida Asanblada,...), eta izenaren ñabarduraz gain, guztiek hiru elementu bereizgarri nagusi dituzte:

Gizartearen lagin adierazgarria dira. Biztanleriaren estratifikazio optimoa ahalbidetzen duten eredu estatistikoak erabiltzen dituzte, eta, horrela, haien ordezkagarritasuna eta partaidetza-espazioaren parte izan ahal izateko aukeraber dintasuna bermatzen dituzte.

Eztabaidarako erabiltzen den denborak gutxienez lanaldi oso batekoa izan behar du, baina zenbait egunetara ere luza daitezke ekimenak.

Adostasunera bideratzea. Parte-hartzaileen adostasun-maila handia lortzen duten gomendioak bakarrik jotzen dira baliozkotzat (normalean, gutxienez % 80koa gomendatzen da).

PARTAIDETZA LANKIDETZA-ARLOAN AURRERA EGITEKO ETA ALIANTZAK EZARRI ETA GARATZEKO TRESNA GISA

Erronka gero eta konplexuagoi buruz azaldutakoaren ildotik, eta erronka horien aurrean konponbide errazik eta berehalakorik ez dagoenez, lankidetza da erronka horiei ekiteko lortu beharreko helburua eta aliantzak lankidetza egituratzeko eta garatzeko modu nagusia.

17. GIHaren (Aliantzak) 17.17 xedeak honakoa aipatzen digu: “Aliantza eraginkorrak sustatzea eta bultzatzea esparru publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean, aliantzek baliabideak lortzeko dituzten esperientzia eta estrategiak aprobetxatuz”. Ildo horretan, partaidetza da lankidetzara heltzeko abiapuntua. Pertsonak eta/edo erakundeek elkarrekin gehiago parte hartzen duten neurrian eta, konponbideak elkarrekin diseinatuz, ekarpen handiagoa egiten duten neurrian, errazagoa izango da haiek garatzea eta inplementatzea lankidetzan oinarrituta.

PARTAIDETZA INKLUSIBOA ETA “HIZKUNTZA ARGIAN”

Inklusibotasuna eta herritarren hizkera erabiltzea Gobernu Irekiaren oinarritzko printzipioak dira, eta Partaidetza-arloan ere aplikagarriak dira.

Hizkerari dagokionez, gero eta prozesu gehiagok erabiltzen dituzte irakurketa errazaren edo hizkuntza argiaren irizpideak, eta honako hauei aplikatzen dizkiete:

Parte hartzeko dinamikak: inkestak, lan-tailerrak, focus group-ak, ...

Parte hartzearekin lotutako materiala: oinarritzko dokumentazioa edo testuinguruan jartzekoa, partaidetza-memoriak, ...




- 03.01 Plana egiteko erabilitako metodologiaren ikuspegi orokorra
- 03.02 Garatutako partaidetza-prozesuaren deskribapena
- 03.03 Garatutako partaidetza-prozesuak Planari emandako balioa

3. Plana egiteko erabilitako metodologia



3.01- Plana egiteko erabilitako metodologiaren ikuspegi orokorra

Plana honako prozesu honen arabera egin da:



Plana egiteko partaidetza-prozesua

Lan-prozesu honetan bereziki nabarmena izan da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu beharreko partaidetzari buruzko Eztabaida Foroa, 2023ko urtarrilaren 28an Euskalduna Jauregian gauzatu zena.



Foro horretan 33 pertsonak hartu zuten parte guztira, Bizkaitarren Sarean edo partaidetzari buruzko newsletterrean izena emanda zeuden eta Foroan parte hartzeko interesa azaldu zuten pertsonen artean aukeratuak.

Pertsona horiek 4 gai landu zituzten eta honako galdera hauek izan zituzten ardatz:

1. gaia

Nola gauzatu parte hartzeko eskubidea?

Parte hartzeko zein kanal izango lirateke eraginkorrenak parte-hartze handiagoa lortzeko? Eta balio handiagoa emango duen partaidetza lortzeko? Eta zeintzuk kolektibo jakinen partaidetza bermatzeko? Nola uztartu beharko lirateke aurrez aurreko partaidetza eta partaidetza telematikoa?

2. gaia

Nola ezagutu/eskuratu parte hartzeko aukerak?

Zein informazio/zabaltze-kanal izango lirateke eraginkorrenak herritarrengana heltzeko eta partaidetza handiagoa lortzeko, betiere kontuan hartuta kanal horiek arrazoizko kostua izan behar dutela?

3. gaia

Prozesuan zehar eman beharreko informazioa

Zer informazio-mota behar dut parte hartzeko aurkezten zaidan gaiari edo proposamenari buruz behar adinako ezagutzarekin parte hartu ahal izateko? Zer informazio eman beharko litzateke prozesuari buruz bertan parte hartzeko interes nahiko sortzeko?

4. gaia

Gardentasunaren eta emaitzak itzultzearen funtsezko elementuak

Zein elementu dira funtsezko parte hartzeko organoen, espazioen eta prozesuen gardentasuna lortzeko eta herritarrek partaidetza-arloan zer egiten den ezagutzeaz gain, partaidetzaren kudeaketa egokia egiten ari dela eta emaitza egokiak lortzen ari direla uste osoa izateko?




Forotik 23 gomendio sortu ziren guztira, Aldundiak bultzatutako herritarren partaidetzak herritarren beharrei eta igurikimenei hobeto erantzuteko. Aldundiak 23 gomendioak zehatz-mehatz aztertu ostean, bideragarritzat jo zen 22 gomendio, osorik edo partzialki, hartzea.



23



22




3.02- Garatutako partaidetza-prozesuaren deskribapena


Ia 1.600 pertsona eta eragileren iritziak eta proposamenak jaso dira (Foru-sailez gain), eta, horri esker, prozesua aberastu eta parte-hartzearen subjektuen beharren eta itzaropenen ikuspegi zabala txertatu ahal izan da.



AGENTE



Bizkaiko Foru Aldundiko plantilla



Foru Aldundiak



BFAko partaidetza sozialeko organo egonkorreko eragileak



Bizkaiko toki-entitateak



Herritarrak


Hurrengo koadroak garatutako prozesuaren ikuspegi orokorra ematen du:

ERAGILEA	LANDUTAKO GAIAK	GARATUTAKO DINAMIKA
 <p>Bizkaiko Foru Aldundiko plantilla</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Partaidetzari emandako garrantzia. * BFAn egiten den partaidetzaren ezagutza-maila eta balorazioa. * Partaidetzaren kudeaketa-arloko esperientzia eta behar pertsonalak. * Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak. 	<ul style="list-style-type: none"> * Online inkesta (103 pertsona)
 <p>Foru Aldundiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Partaidetzaren funtzionamendua sailean. * Partaidetzaren kudeaketa-arloko esperientzia eta beharrak. * Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak. 	<ul style="list-style-type: none"> * Online galdetegia * Sakontzeko bilerak eta banakako kontaktuak
 <p>BFAko partaidetza sozialeko organo egonkorreko eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Parte hartzen duten organoen funtzionamendua eta erabilgarritasuna. * Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak. 	<ul style="list-style-type: none"> * Online inkesta (25 eragile)
 <p>Bizkaiko toki-entitateak</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak. 	<ul style="list-style-type: none"> * Online inkesta (33 toki-entitate)
 <p>Herritarrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> * Partaidetzari emandako garrantzia. * Aurretiko esperientzia partaidetzaren arloan (eta balorazioa BFAk sustatutako prozesuen kasuan). * Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak. 	<ul style="list-style-type: none"> * Online inkesta, Bizkaitarren Sareko harpidedunei bidalia (1.358 pertsona) * Eztabaida Foroa (33 pertsona)


Ondoren, eragile bakoitzak egindako ekarpen nagusiak aurkezten dira:

BFAKO PLANTILLA

Balorazio ona partaidetzak gobernantza publikoa hobetzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko tresna gisa duen garrantziari buruz (% 92k balorazio ona edo oso ona eman diote).



Balorazio ona Aldundiak egindako partaidetzaren erabilgarritasunari buruz. % 67k uste dute politika eta/edo zerbitzu publiko hobeak diseinatzea edo berriz diseinatzea ahalbidetu duela eta % 66k politika eta zerbitzu publikoak adostasun handiagorekin lortzea ahalbidetu duela.




Ezagutza-maila txikia Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza-tresnei buruz, bai organo eta espazio egonkorrei bai prozesu espezifikoiei dagokienez.

Partaidetza-arloko prestakuntza handitzeko beharra.


FORU-ZUZENDARITZAK

Beren ustez, egun dauden organoak funtsezkoak dira eragileekin harreman egokia izateko, politikak, zerbitzuak eta programak diseinatu eta ebaluatzeko.

Oraingo osaera egokia (% 69) eta horien funtzionamendua eraginkorra (% 75) direlakoan daude.




Sustatutako partaidetza-prozesuei dagokienez, aurretiko ideiak baliozkotzeko (% 77), ideia erabilgarri berri identifikatzeko (% 69) eta haien jarduera ezagutarazteko (% 69) duten balioa nabarmendu dute.




BFAKO PARTAIDETZA SOZIALEKO ORGANO EGONKORRETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

Gehiago baloratzen dute parte hartzen duteneko organoek aliantzak sustatzeko eta/edo adostasunak lortzeko (%52) duten erabilgarritasuna politikak, programak edo/eta zerbitzu publikoak sortzeko (% 30) eta ebaluatzeko (% 37) dutena baino.



Organoen funtzionamenduari dagokionez, iritziak adierazteko (% 63) eta proposamenak egiteko (% 59) askatasuna nabarmendu dute. Hala ere, bileren kopuruaren egokitasuna hobetu daitekeela uste dute.




BIZKAIKO TOKI-ENTITATEAK

Haien ekarpen nagusia lotuta dago partaidetzan inklusibotasuna bermatzeko beharrarekin.


Era berean, parte-hartzea bultzatzeko bitarteko eta kanal guztiak erabiltzearen aldeko apustua egiten dute, bai eta parte-hartze presentziala neurri handiagoan erabiltzearen alde ere.

HERRITARRAK

Partaidetza oso tresna garrantzitsutzat jotzen dute gobernantza publikoa hobetzeko eta herritarrak gehiago inplikatzeko (% 91).



BFAk bultzatutako eta haiek parte hartutako partaidetza-prozesuekiko gogobetetze-maila ertaina adierazten dute. Hobekien baloratutako alderdia hizkuntza ulergarria erabiltzea da (% 52); aitzitik, gutxien baloratutako alderdiak honako hauek dira: irizpidearekin parte hartzea ahalbidetzen duen dokumentazio nahikoa egotea eta prozesuen emaitzei buruzko informazio nahikoa izatea, eta herritarren iritzia eta ekarpenak sartzeko modua (% 32 eta % 30, hurrenez hurren).



%43k uste dute partaide izan diren partaidetzak eragin handia edo oso handia izan duela.



Galdetegietan proposatutako helburuei dagokienez, guztiekiko adostasun-maila oso handia da.

HELBURU HAUEKIKO ADOSTASUN-MAILA

(helburu hauek nahiko edo oso lehentasunezkoztat jotzen duten eragile/ pertsonen %)

HELBURUEN LEHENTASUNA	BFAKO PLANTILLA	BFAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAK	PARTAIDETZA-ORGANOETAKO ERAGILEAK	TOKI- ENTITATEAK	HERRITARRAK
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	%92	%90	%88	%100	%91
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	%77	%58	%62	%94	%87
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiet buruzko partaidetza-prozesu gehiago	%91	%90	%100	%97	%95
Irekita dauden edo irekitzeaz dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	%91	%80	%100	%97	%95
Garatzen diren partaidetza- prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	%91	%90	%100	%100	%100
Elkarteek, udalek, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	%79	%80	%87	%94	%92
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza- ekimenak babestea	%74	%70	%67	%94	%93

3.03- Garatutako partaidetza-prozesuak Planari emandako balioa

Garatu den partaidetza-prozesuari esker, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Plana egiteko beharrezkoak diren **funsezko eragileen tipologia guztien iritziak eta proposamenak jaso ahal izan dira.**

Garatu den prozesuak aukera eman du 2020-2023ko Partaidetza Planaren ebaluazioan identifikatutako hobekuntza-eremuak berresteko.

Gainera, prozesuari esker, oso ikuspegi partekatua lortu da Bizkaiko parte-hartzean sakontzen jarraitzeko barne- eta kanpo-eragileek gomendatzen dituzten helburu estrategikoei eta lehentasunezko lan-ildoek buruz; halaber, aztertu ondoren, Plana osatzen duten jardueretan txertatu ahal izan diren proposamen zehatzak jaso dira.



Berriz ere nabarmendu behar da Eztabaida Foroak emandako balioa, hortik eratorri baitira Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso zehatzak, Plan honen helburuetan eta jardueretan jasota daudenak.






4

- Bizkaiko Foru Aldundian garatzen den partaidetzari buruzko diagnostikoa

4.01- Bizkaiko Foru Aldundian garatzen den partaidetzari buruzko diagnostikoa

Lehen aipatutako elementuetatik Bizkaiko Foru Aldundian garatzen den partaidetzari buruzko diagnostiko hau lortu da:



Indarguneak

- * Konpromiso politiko- instituzionala
- * Eredu finkatua eta ezagutzeko modukoa
- * Nahikotasuna, egokitasuna, eta partaidetzarako organo eta kanal egonkorrek emandako balioa
- * Bizkaiko Toki Entitateen partaidetza sustatzeko hasitako bidea
- * Eztabaida-partaidetzari lotuta hasitako bidea
- * Bizkaitarren Sarea eta BizkaiaGara, Bizkaiko herritarrek konpromiso soziala hartzeko eta parte hartzeko duten borondatearen isla
- * Erakundeen arteko lankidetzara OGP Euskadi bezalako ekimenetan



Aukera- elementuak

- * Partaidetza, hurbiltasuna eta entzuketa aktiboa erdigunean dituen gobernantza-eredua egituratzeko tresna estrategikoa
- * Eztabaida-partaidetzan sakontzea
- * Haurren eta nerabeen partaidetzan sakontzea
- * Herritarrei partaidetza- aukerak gehiago hurbiltzea
- * Balio handiago ematea parte-hartzeak foru- politiken diseinuan eta ezarpenean dituen onurei eta inpaktuari, horien aurrekontu-inpaktua barne
- * Bizkaiko Toki Entitateen lankidetzara partaidetza- alorrean
- * Partaidetzatik Bizkaiko garapen jasagarriarekiko konpromisora eta lankidetzara igarotzea

Hobetu beharreko eremuak

- * Partaidetzarako Atariari ikusgarritasun handiago ematea
- * Partaidetzarako organoen, espazioen eta prozesuen funtzionamendua sistematizatzea/ homogeneizatzea
- * Barne-prestakuntza gehiago partaidetzaren arloan
- * Prozesuetan dinamika espezifikoak sartzea partaidetzatik aldenduago egon ohi diren kolektiboetarako

- 5.01 Ikuspegia
- 5.02 Helburu estrategikoak
- 5.03 Jarduera-ildoak



5. Ikuspegia, helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak

5.01- Ikuspegia

Diagnostiko honen errealitatea kontuan hartuta (indarguneak, hobetzeko eremuak eta Bizkaiko parte- hartze ereduan sakontzen jarraitzeko aukerak), honako IKUSPEGI hau definitzen da Planerako:



Gure **IKUSPEGIA**
Bizkaian
garatzen den
partaidetzarako

“ Partaidetza esanguratsua maila kuantitatiboan eta kualitatiboan, Bizkaiko kolektibo, udalerrri eta mankomunitate guztietara heltzen dena, Aldundiaren kudeaketa-dinamiketan erabat integratua, eta Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiten jarraitzeko ezinbestekoak diren politika eta zerbitzu publikoei adimen kolektiboaren, adostasunaren, lankidetzaren eta konpromisoaren balio garrantzitsua ematen diena. ”

5.02- Helburu estrategikoak

Bizkaian partaidetzarako ikuspegi hori lortzeko, 4 urte hauetan (2024-2027) 5 helburu estrategiko handitan egin beharko da aurrera :



Gure Partaidetza Ereduan sakontzen jarraitzea.

Eredu horrek pertsona eta talde guztiei ahotsa eman eta entzuten die, Bizkaia-aren etorkizunerako adostasun zabalak eraikitzea ahalbitzen du, eta, aldi berean, Erakundearen eskumen-erantzukizunari eusten dio.

1.



Bizkaiko gizarteari partaidetza-aukerak gehiago hurbiltzea, parte hartzeko eskubidea benetan egikaritzea erraztuz eta eskubide hori pertsona guztiengana heltzen dela bermatuz.

2.



Bizkaiko gizartearen **partaidetza-, lankidetz- eta konpromiso-kultura handiagoa sortzen jarraitzea.**

3.



Bizkaiko toki-entitateek herritarrek parte hartzeko sustatzen dituzten jarduerari Aldundiak ematen dien laguntzari eustea, batez ere tamaina eta baliabide gutxien dituztenei, eta Bizkaiko toki-entitateen arteko partaidetzaren arloko lankidetz- sinergiak aprobetxatzea.

4.



Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen partaidetzak balio publiko handiagoa ematea lortzea.

5.

5.03- Jarduera-ildoak

Ikuspegi eta helburu estrategiko horiek 4 jarduera-ildo operatiboren bidez hedatuko dira:

1.

Parte hartzeko aukerak eta erraztasunak

Jarduera-ildo honen bidez, are gehiago hurbildu nahi zaizkie parte hartzeko aukerak Bizkaiko herritarrei eta eragile instituzional, sozial eta ekonomikoei, parte-hartze hori errazagoa eta intuitiboagoa izan dadin.

2.

Barne-gaitasunak eta partaidetzaren kudeaketa

Jarduera-ildo honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko sailek beren kudeaketa-eremuetan parte-hartzea behar bezala bultzatzeko behar dituzten baliabideak garatu nahi dira.

3.

Lankidetzaren partaidetza-arloan

Lan-ildo honetan jasotako jardueren ardatz nagusia lankidetzaren sustatzea da, partaidetza Bizkaiko Lurralde Historiko osoan errealitate izan dadin.

4.

Gizarte-aktibazioa eta boluntarioria

Jarduera-ildo honen bitartez, gizarte-aktibazioa eta boluntarioria sustatu nahi dira Bizkaiko herritarrak lurraldearen garapen jasangarrian inplikatzeko aukera ematen duten tresna gisa, eta, horrela, lankidetzaren sendotu nahi da, Bizkaiko balio handienetako bat den aldetik.




06.01 Aurreikusitako jarduerak

6. Aurreikusitako • jarduerak

6.01- Aurreikusitako jarduerak

Ikuspegi horretatik eta helburu estrategiko horietatik **17 jarduera eratorri dira, definitutako 4 jarduera-ildo operatiboen inguruan antolatua:**



1. Parte hartzeko aukerak eta erraztasunak

- 1.1 "Partaidetza Bizkaia" marka garatzea eta duen balioa nabarmentzea.
- 1.2 Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzarako Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea.
- 1.3 Foru-estrategiak, -planak eta -arauak lantzean partaidetza sustatzea, ahal den neurrian nahitaezko partaidetza-prozesu administratiboetatik haratago joanez.
- 1.4 Foru-zerbitzuak definitzearekin, birdefinitzearekin eta hobetzearekin lotutako partaidetza sustatzea.
- 1.5 Eztabaida-partaidetzan sakontzen jarraitzea.
- 1.6 "Bizkaitarren Sarea" sendotzea partaidetza-aukerak zabaltzeko kanal gisa.
- 1.7 Haurren eta nerabeen partaidetza sustatzeko proiektu espezifiko bat garatzea.

2. Barne-gaitasunak eta partaidetzaren kudeaketa

- 2.1 Bizkaiko Foru Aldundian partaidetzarekin lotutako barne-antolamendua taxutzea, bere garapena eta hobekuntza bultzatzeko.
- 2.2 Foru-langileen partaidetza-arloko gaikuntza areagotzea.
- 2.3 Aldundiak parte hartzeko sustatzen dituen organoen, espazioen eta prozesuen funtzionamendua homogeneizatzea eta sistematizatzea
- 2.4 Partaidetza-jardueretan komunikazio argia neurri handiagoan txertatzea.

3. Lankidetzaren partaidetza arloan

- 3.1 Bizkaiko Toki Entitateetan partaidetza sustatzeko laguntza ekonomikoen ildoari eustea.
- 3.2 Bizkaiko Toki Entitateen artean partaidetza-arloko lankidetzaren eta ikaskuntza partekatua bultzatzea.
- 3.3 OGP Euskadi proiektuan eta Aldundiak beste erakunde eta eragile batzuekiko lankidetzaren bidez bultzatzen duen parte-hartzea hobetzea ahalbidetzen duten beste ekimen batzuetan aktiboki parte hartzen jarraitzea.

4. Gizarte-aktibazioa eta boluntariotza

- 4.1 "BizkaiaGara" ekimena garatzea eta duen balioa nabarmentzea, Bizkaiko herritarrek gizarte-aktibazio eta -konpromiso handiagoa izan dezaten.
- 4.2 Bizkaiko enpresek boluntariotzarekin duten konpromisoan sakontzea.
- 4.3 Boluntariotza-jarduerak sustatzea ingurumenaren eta kulturaren eremuetan.

AURREIKUSITAKO JARDUERAK

Jarduera-ildoak

1 Parte hartzeko aukerak eta erraztasunak

2 Barne-gaitasunak eta partaidetzaren kudeaketa

3 Lankidetzaren partaidetza arloan

4 Gizarte-aktibazioa eta boluntarioria

1.1 jarduera

“Partaidetza Bizkaia” marka garatzea eta duen balioa nabarmentzea

Justifikazioa eta helburuak

Parte-hartze eraginkorrak eskatzen du herritarrek eta lurralde bateko eragileek bertan egiten diren partaidetza-jardueren ezagutza handia izatea. Ezagutza hori ez da erraza gaien zabaltasuna handia denean.

Partaidetza-marka bat izatea ezagutza hori errazten duen elementu bat da; beraz, garrantzitsutzat jotzen da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza-jarduerak identifikatzen laguntzeko moduko marka bat sortzea.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera honek honakoak dakartza berekin:

- “Partaidetza Bizkaia” marka sortzea.
- “Partaidetza Bizkaia” marka erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako partaidetza-jardueretan.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Komunikaziorako Zuzendaritza.

Jarraipen eta ebaluazio- irizpideak

- Markaren garapena: bai/ez.

1.2 jarduera

Bizkaiko Foru Aldundiko partaidetzarako atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea

Justifikazioa eta helburuak

Bizkaiko edozein herritarrek parte hartzeko duen eskubidea modu errazean gauzatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak garatzen dituen parte-hartze jarduerari buruz informatzeko aukera ematen duen Partaidetzarako Atari askoz osoagoa eta intuitiboagoa sortzea 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren ezarpenaren mugarri garrantzitsuenetako bat izan da.

Hala ere, espazio horretarako sarbidea ez da behar bezain intuitiboa bizkaia.eus-en webgunearen arkitekturaren barruan; beraz, beharrezkoa da Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea.

Berekin dakartzan jarduerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetzarako Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzeko irtenbide baten definizioa eta inplementazioa.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Komunikaziorako Zuzendaritza.
- Lantik.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Atariaren ikusgarritasuna eta sarbidea hobetzea: bai/ez.
- Partaidetza-webgunerako sarbide-kopurua.

1.3 jarduera

Foru-estrategiak, -planak eta -arauak lantzean partaidetza sustatzea, ahal den neurrian nahitaezko partaidetza-prozesu administratiboetatik haratago joanez

Justifikazioa eta helburuak

Foru-estrategiak eta -planak funtsezko tresnak dira Bizkaiko gizartearen premiei eta lehentasunei erantzungo dieten politikak diseinatzeko.

Plangintza-tresna horietako gehienek sektoreko eragile garrantzitsuen parte-hartzea barne hartzen dute dagoeneko, baina egokitzat jotzen da prozesu horietan herritarren iritzia txertatzea, bai eta parte-hartzeari balioa ematea ere, funtsezko tresna gisa, bai foru-estrategiak eta foru-planak diseinatzeko, bai gobernatzeko.

Jarduera honen helburua da herritarren eta gizartearen partaidetza sendotzea eta sistematizatzea foru-estrategiak, -planak, eta -arauak egiteko prozesuetan, bai eta partaidetzari balioa ematea ere, prozesu horien funtsezko tresna gisa.

Berekin dakartzan jarduerak

Honako elementu hauetan sakontzeko lan egingo da:

- Partaidetza-prozesuak diseinatzea eta foru-estrategiak,-planak, eta - arauak egiteko prozesu globalaren barruan integratzea.
- Partaidetza-prozesuak dinamizatzea.
- Horien gaineko ebaluazioa eta kontu-ematea, parte-hartzeak aurrekontuan duen inpaktua adieraziz.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Nahitaezko partaidetza-prozesu administratiboetatik haratuagoko partaidetzarako prozesuak lotuta dituzten foru-estrategien eta foru-planen ehunekoa.

1.4 jarduera

Foru-zerbitzuak definitzearekin, birdefinitzearekin eta hobetzearekin lotutako partaidetza sustatzea

Justifikazioa eta helburuak

Erakunde publiko gehienak beren zerbitzuak birdefinitzeko eta hobetzeko prozesuak lantzen ari dira, helburu bikoitzarekin: herritarren beharrei eta itzaropenei hobeto erantzutea, eta, ahal den neurrian, zerbitzu horiei lotutako administrazio-izapideak sinplifikatzea, herritarrentzat intuitiboagoak eta errazagoak izan daitezen.

Zerbitzuak birdefinitzeko eta hobetzeko prozesu horiek gero eta irekiagoak dira, eta horrek esan nahi du eragile garrantzitsu guztiak sartu behar direla prozesu horietan, baita zerbitzuaren unitate arduraduna, gaian adituak diren pertsonak eta zerbitzuaren erabiltzaileak izango direnak ere.

Berekin dakartzan jarduerak

Partaidetza sendotzea foru-zerbitzuak definitzeko, birdefinitzeko eta hobetzeko prozesuetan, eta prozesuetan zerbitzuen erabiltzaileak sartzea. Partaidetza Govtech Lab Bizkaia bezalako berrikuntza-laborekin edo antzeko formulen bidez garatu ahal izango da.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Foru-zerbitzuak definitzearekin, birdefinitzearekin eta hobetzearekin lotuta dauden eta herritarren zuzeneko partaidetza barne hartzen duten prozesuen kopurua.

1.5 jarduera

Eztabaida-partaidetzan sakontzen jarraitzea

Justifikazioa eta helburuak

Parte hartzeko modu kualifikatu eta berritzaile gisa eztabaida-foroak garatzea izan da 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren ezarpenaren beste mugarrietako bat, eta joera garrantzitsua da herritarren parte- hartzearen arloan.

Horrelako prozesuak beste partaidetza-tresna batzuen osagarri izan daitezke eta izan behar dute, eta bereziki egokiak dira erronka konplexuekin lotutako eztabaidei ekiteko.

Helburua da eztabaida bidezko partaidetza-prozesuen kopurua areagotzea Partaidetzarako III. Planaren aplikazioaren esparruan.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera honek honakoak dakartza berekin:

- Foru-sailekin lankidetzan, etengabe identifikatzea eztabaida bidezko partaidetza-prozesuak integratzeko moduko lehentasunezko esparruak.
- Eztabaida-foroak edo eztabaida-partaidetzarako bestelako formatuak antolatzea.
- Eztabaida-prozesuak ixtea, honako hauek barne hartuta: jasotako gomendioak aztertzea, horiei dagokienez hartutako konpromisoak zehaztu eta jakinaraztea, eta konpromisoak gauzatzeari buruzko kontu ematea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio- irizpideak

- Garatutako eztabaida-prozesuen kopurua.
- Parte-hartzaileen kopurua.
- Jasotako gomendioen kopurua.
- Hartutako gomendioen ehunekoa (osorik + partzialki).
- Onartu eta urtebeteko epean bete diren hartutako konpromisoen ehunekoa.

1.6 jarduera

“Bizkaitarren Sarea” sendotzea partaidetza-aukerak zabaltzeko kanal gisa

Justifikazioa eta helburuak

2020-2023ko Partaidetzarako II. Planean jasotako gomendioetako bat da komunikazioa-ahaleginetan sakontzea, Bizkaiko herritarrak partaidetza- prozesuetara hurbiltzeko.

Zentzu horretan, funtsezkoa da Bizkaitarren Sarearen aldeko apustua egiten jarraitzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan parte hartzeko interesa eta konpromisoa duten pertsonen kopurua handitzeko tresna gisa.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera honek 2 lan-ildo osagarri ditu:

- Alde batetik, Bizkaitarren Sarean pertsona eta erakunde gehiago sartzeko lan proaktiboa, parte hartzeko aukera irekiei eta/edo aurreikusitakoei buruzko informazio eguneratua eskuratu nahi duten pertsonekin eta erakundeekin harremanbide jarraitua izateko.
- Bestalde, parte-hartzeari eta gobernu irekiari buruzko newsletter forala egitea eta argitaratzea, herritarrei, eragileei eta BFAko barneko langileei zuzenduta. Bertan, datozen hilabeteetarako aurreikusita dauden partaidetza-aukerez gain, garatutako parte-hartze jarduera nagusiei eta gobernu irekiarekin lotutako beste gai interesgarri batzuei buruzko informazioa emango da.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Zugaztel.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Bizkaitarren Sarean parte hartzen duten pertsonen kopurua.

1.7 jarduera

Haurren eta nerabeen partaidetza sustatzeko proiektu espezifikoaren garatzea

Justifikazioa eta helburuak

Haurren eta nerabeen parte-hartzea eskubide bat da. Horrela jasotzen du, printzipio gidari gisa, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak, eta estatuei eskatzen die "bermatzeko haurrek askatasunez adieraz ditzaketela beren iritzia eragiten dieten gaien buruz, eta beren iritzia kontuan har daitezela".

Gainera, haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea herritar konprometitu eta toleranteagoen alde inbertitzea da, eta beraz, gizarte demokratikoago baten alde.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera honek honakoak dakartza berekin:

- Bizkaian haurrek eta nerabeek parte har dezaten proiektu espezifiko bat diseinatzea.
- Proiektu hori garatzea hurrekin eta nerabeekin lotutako lurraldeko tokiko erakunde eta eragileekin lankidetzan.
- Bizkaia haurren eta nerabeen partaidetzarekin konprometitutako lurralde gisa posizionatzea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Bizkaiko Toki Entitateak.
- Hurrekin eta nerabeekin lotutako gizarte-eragileak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Haurrek eta nerabeek parte har dezaten Lurraldean dauden espazioen kopurua.

2.1 jarduera

Bizkaiko Foru Aldundian partaidetzarekin lotutako barne-antolamendua taxutzea, bere garapena eta hobekuntza bultzatzeko

Justifikazioa eta helburuak

2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren azken ebaluazioan jasotako hobekuntza-esparruetako bat da parte-hartzea gehiago sistematizatzeko beharra, organo egonkorretan zein Foru-sailek sustatutako unean uneko partaidetza-prozesuetan garatutako partaidetza-jarduerak ahalik eta homogeneizazio handiena izan dezaten.

Sistematizazio horri ekiteko, beharrezkotzat jotzen da Foru-sailen barruan partaidetza antolatzen eta sustatzen lagunduko duen barne-arauren bat izatea.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarraibideak, gomendioak eta/edo barne-prozedurak garatuko dira, honako hauek ezartzeko:

- Barne-antolamendua, Foru-sailen barruan herritarren eta gizartearen partaidetza sustatu eta koordinatzeko..
- Partaidetzari lotutako funtsezko jarduerak sistematizatea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Jarraibideak, gomendioak eta/edo barne-prozedurak sortzea: bai/ez.

2.2 jarduera

Foru-langileen partaidetza-arloko gaikuntza areagotzea

Justifikazioa eta helburuak

Aldundiko langileen inplikazioa funtsezkoa da parte hartzeko organoek, guneek eta prozesuek espero den balioa emateko. Ezinbestekoa da pertsona eta ekipo sentibilizatuak eta gaituak izatea herritarren eta gizartearen partaidetzak berekin dakartzan jarduerak diseinatu, dinamizatu eta ebaluatu ahal izateko.

Nahiz eta 2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren barruan pausu garrantzitsu bat eman zen gaikuntzari dagokionez bideo-pilulen bidez eta "Bizkaiko Foru Aldundian Partaidetza sustatzeko gida metodologikoa" eginez, beharrezkotzat jotzen da jarduera hori areagotzea III. Planaren esparruan.

Berekin dakartzan jarduerak

Honako esparru hauek landuko dira:

- Foru Aldundiko langileei zuzendutako parte-hartzeari eta gobernu irekiari buruzko berariazko prestakuntza-eskaintza sortzea eta kudeatzea. Eskaintza horretan, gai horren inguruko sentibilizazio- eta hastapen- jarduerak eta horretan sakontzeko jarduerak sartuko dira.
- Jardunbide egokiei eta parte hartzeko metodologiei buruzko tailerrak eta topaketak antolatzea, Aldundiko sailei zuzenduta.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio- irizpideak

- Partaidetza-arloan gaitutako pertsonen kopurua.

2.3 jarduera

Aldundiak parte hartzeko sustatzen dituen organoen, espazioen eta prozesuen funtzionamendua homogeneizatzea eta sistematizatzea

Justifikazioa eta helburuak

2020-2023ko Partaidetzarako II. Planaren azken ebaluazioan jasotako hobekuntza-esparruetako bat da parte-hartzea gehiago sistematizatzeko beharra, organo egonkorretan zein Foru-sailek sustatutako unean uneko partaidetza-prozesuetan garatutako partaidetza-jarduerak ahalik eta homogeneizazio handiena izan dezaten.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduerak honek honako hauek dakartza berekin:

- Parte hartzeko organo eta espazio egonkorren partaidetza- eta funtzionamendu-adierazleak sistematizatzea eta homogeneizatzea, bai eta horien jarduerari eta funtzionamenduari buruz eskainitako informazioa ere.
- Aplikazio komuneko metodologia bat sortzea, garatutako partaidetza- prozesuen aurrekontuaren eragina ebaluatzeko.
- Parte hartzeko organoen, espazioen eta prozesuen aldizkako metaebaluazioa, etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Homogeneizazio handiagoa lortzea: bai/ez.
- Aplikazio komuneko metodologia bat sortzea, garatutako partaidetza- prozesuen aurrekontuaren eragina ebaluatzeko: bai/ez.

2.4 jarduera

Partaidetza-jardueretan komunikazio argia neurri handiagoan txertatzea

Justifikazioa eta helburuak

Komunikazio Argiak informazio esanguratsua erraztasunez eta eraginkortasunez helarazten du, eta pertsonak ulertzeko duten eskubidea benetan gauzatzen laguntzen du.

Bizkaiko Foru Aldundia aspalditik ari da arlo horretan lanean (eta, bereziki, irakurketa errazaren arloan), baina oraindik ere bada hobetzeko tarte bat, komunikazio argia partaidetza-jardueretan gehiago txerta dadin, komunikazioa erraztuz parte hartzeko eskubideari zein parte hartzeko organo, gune eta prozesuen emaitzak eta inpaktua ezagutzeko eskubideari dagokienez.

Berekin dakartzan jarduerak

Komunikazio argia partaidetza-jardueretan erabiltzea, honako hauei aplikatuz:

- Partaidetza-dinamikak: inkestak, lan-tailerrak, focus group-ak, eztabaida- foroak...
- Partaidetzarekin lotutako materiala: oinarrizko edo testuinguruko dokumentazioa, partaidetza-memoriak ...

Horren barruan sartzen da hizkuntza argia erabiltzea eta multimedia- elementuak gehiago erabiltzea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Foru-sail guztiak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Partaidetza-prozesuen ebaluazioan komunikazio argia erabiltzearen batez besteko balorazioa.

3.1 jarduera

Bizkaiko toki-entitateetan partaidetza sustatzeko laguntza ekonomikoen ildoari eustea

Justifikazioa eta helburuak

Bizkaiko udalerrien % 70ek 5.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Oro har, giza-baliabide eta baliabide ekonomiko eta tekniko mugatuak dituzten udalerriak dira eta laguntza behar izaten dute parte hartzeko prozesuak diseinatzeko eta inplementatzeko.

Bestalde, eskualde-mailako partaidetza-prozesuek balio handia eskaintzen dute lurraldeko garapen jasangarriko (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) erronkei erantzuna emateko eta bertako eragileen arteko lankidetzak sustatzeko.

2022tik aurrera, udalerrientzako eta mankomunitateentzako dirulaguntzen lerro bat jarri da abian, herritarren eta gizartearen parte-hartzea bultzatzeko. Ekimen horrek emaitza bikainak eman ditu eta mantendu egin behar da.

Berekin dakartzan jarduerak

Bizkaiko toki-entitateetan partaidetza sustatzeko dirulaguntzen urteko deialdiari eustea, eta horien eragina etengabe ebaluatzea behar diren egokitzapenak egiteko.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Toki Entitateak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Bideratutako aurrekontua (€).
- Toki-entitate onuradunen kopurua.
- Lagundutako proiektuen kopurua.

3.2 jarduera

Bizkaiko toki-entitateen artean partaidetza-arloko lankidetzaz eta ikaskuntza partekatua bultzatzea

Justifikazioa eta helburuak

Bizkaiko toki-entitateen partaidetza-proiektuei sostengatzeko laguntza ekonomikoez gain, arlo horretan lankidetzaz eta ikaskuntza partekatua sustatzeko beste mekanismo batzuk garatzeko beharra eta aukera ikusten da.

Berekin dakartzan jarduerak

Eremu hauetan lan egingo da:

- Lurraldeko udalerrri txikienen errealitateari aplikatu dakizkiokeen partaidetza-metodologiak biltzea eta/edo sortzea eta banatzea.
- Prestakuntza-jarduerak eta ezagutza trukatzeko jarduerak antolatzea.
- BiscayTIK-en bidez irtenbide teknologikoak partekatzea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Udal Harremanen Zuzendaritza.
- BiscayTIK.
- Bizkaiko Toki Entitateak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Garatutako lankidetzako eta ikaskuntza partekatuko jardueren kopurua.
- Parte hartu duten toki-entitateen kopurua.

3.3 jarduera

OGP Euskadi eta Aldundiak beste erakunde eta eragile batzuekiko lankidetzaren bidez sustatzen duen partaidetza hobetzea ahalbidetzen duten beste ekimen batzuetan aktiboki parte hartzen jarraitzea

Justifikazioa eta helburuak

OGP (Open Government Partnership) nazioarteko izaerako ekimen bat da, gobernantza gardena, parte-hartzailea, inklusiboa eta arduratsua sustatzen duena, gobernu "irekiagoak, arduratsuagoak eta herritarrekiko sentiberagoak" bultzatzeko mekanismoak garatuz eta ebaluatuz. Gaur egun, 75 herrialde eta 150 tokiko gobernu daude barruan, bi mila milioi pertsona baino gehiago eta gizarte zibileko milaka erakunde ordezkatzen dituztenak.

Euskadi 2018an hautatu zuten Gobernu Irekirako Aliantzaren (OGP) tokiko gobernuen programan parte hartzeko. Harrezkero, bi ekintza-plan egin eta ezarri ditu, elkarlanean diseinatutako konpromiso zehatzekin. Plan horietan, OGP Euskadiren partaide diren erakundeek eta eragileek parte hartzen dute, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak, zeina bere talde sustatzailekoa baita.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera horrek honako hauek dakartza berekin:

- OGP Euskadin presentzia aktiboari eustea, bai partaidetzarako bere proiektuetan eta espazioetan parte hartzeari dagokionez, bai garatutako konponbideei aplikatzeari dagokionez.
- Partaidetza aktiboa parte-hartzeari eta gobernu irekiari lotutako beste sare batzuetan, helburu bikoitzarekin: partaidetza-arloko jardunbide egokietara eta joeretara sarbidea izatea, eta Bizkaian garatutako eredu eta esperientziak ezagutaraztea.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Parte hartzen direneko OGP Euskadi ekimenaren konpromisoen kopurua, herritarren eta gizartearen partaidetzarekin lotuta.

4.1 jarduera

“BizkaiaGara” ekimena garatzea eta duen balioa nabarmentzea, bizkaiko herritarrek gizarte-aktibazio eta –konpromiso handiagoa izan dezaten

Justifikazioa eta helburuak

BizkaiaGara herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lan komunitariorako gune bat da eta lurraldeko pertsonen, erakundeen eta organizazioen zerbitzura dago. Herritarren ekintzako ekosistema bat, Bizkaian boluntariotza eta lan komunitariorako eredu berri batekin konprometitutako pertsonak, organizazioak, enpresak eta erakundeak batzen eta konektatzen dituena. Ekintza- eta harreman-gune bat, bizia eta irekia, proiektuak proposatu, ikertu, partekatu eta bizkortzeko.

BizkaiaGara hainbat ildo estrategikotan aritzen da:

- Sentsibilizazioa.
- Gaikuntza eta aholkularitza.
- Aitortza.
- Barne-komunikazioa eta atxikipen-sarea
- Bitartekaritza.
- Proiektuen garapena.
- Komunikazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta BizkaiaGarako gainerako sustatzaileek uste dute beharrezkoa dela ekimen horren ekosistema eta jarduerak garatzen jarraitzea, bai eta ekimen horrek emandako balioa aitortzea eta nabarmentzea ere.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera horrek honakoak dakartza berekin:

- BizkaiaGarari atxikitako eragileen (publikoak eta pribatuak) eta pertsonen sarea zabaltzea, eremuen dibertsifikazioa eta konpromiso-tipologia guztiak bermatuz.
- Proiektuak laguntzeko eta garatzeko eredu bat sektore guztietan eskalatzea eta ezartzea, inpaktu-aukerak lotu eta sortuko dituena.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- BBK.
- EDE Fundazioa.
- BizkaiaGaran parte hartzen duten eragileak eta herritarrak.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- Boluntarioen kopurua.
- Ekosistemako eragileen kopurua

4.2 jarduera

Bizkaiko enpresek boluntariotzarekin duten konpromisoan sakontzea

Justifikazioa eta helburuak

Bizkaiko enpresak gero eta konprometituago daude garapen jasangarriarekin. Konpromiso hori islatzen da Erantzukizun Sozial Korporatiboko eta ESGko (ingurumen, gizarte eta gobernantzakoa) estrategiak eta planak diseinatzuz, bai eta estrategia eta plan horiek garatzen dituzten ekintzen bitartez,

BizkaiaGaran lehentasunezko lan-ildoetako bat enpresen konpromiso hori baliatzea da, lurraldean eragin handia duten boluntariotza-proiektuak garatzeko.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera horrek honakoak dakartza berekin:

- Komunikazio-ekintzak egitea BizkaiaGaran parte hartzen duten enpresen sarea zabaltzeko.
- Enpresa berriak eta bertako langileak sartzeko BizkaiaGarak garatzen dituen boluntariotza-jardueretan, enpresa horiek Bizkaiko garapen jasangarrirako funtsezko esparruetan duten ezagutza berariaz baliatuz.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Ekintzaitza, Talentu eta Enpresa Lehiakortasuneko Zuzendaritza.
- BBK.
- EDE Fundazioa.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak

- BizkaiaGaran parte hartzen duten enpresa-kopurua.

4.3 jarduera

Boluntariotza sustatzea ingurumenaren eta kulturaren eremuetan

Justifikazioa eta helburuak

Klima-aldaketaren aurkako borroka da mundu-mailan dugun erronka global handiena. Bizkaiak abiapuntu erlatibo ona du arlo honetan, baina trantsizio energetiko-klimatikoa bizkortu behar dugu eta, zehazki, deskarbonizazio- prozesuak; horretarako, ezinbestekoa da herritarrak inplikatzea eta lankidetzan aritzea.

Aldi berean, 18. GIHa (Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna) 2030 Euskadi Agendan sartzeak berekin dakar garapen pertsonalean eta komunitarioan kulturak duen garrantzia eta gizarte-eraldatzaile gisa duen eginkizuna aitortzea.

Ingurumenaren eta kulturaren eremuetan boluntariotzako jarduerak sustatzea funtsezkoa da lehen aipatutako erronkei eta aukerei ekiteko.

Berekin dakartzan jarduerak

Jarduera horrek honakoak dakartza berekin:

- Etengabe identifikatzea ingurumena eta kultura garapen jasangarriaren elementu bultzatzaile izan daitezkeen eremu berriak.
- Jarduera horiek Bizkaia Gararen ekosistemarekin lotzea, bere potentzial osoa baliatzeko erronka horietarako konponbideak identifikatu eta sortzeko.

Barne-unitate eta eragile parte-hartzaileak

- Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza.
- Ingurumen Zuzendaritza.
- Kultura Zuzendaritza.
- BBK.
- EDE Fundazioa.

Jarraipen eta ebaluazio-irizpideak



- Ingurumenaren arloan garatutako ekimenen kopurua.
- Kulturaren arloan garatutako ekimenen kopurua.



7.

Planaren
gobernantza

“Planaren gobernantza” terminoak Plana eraginkortasunez inplementatzeko Planaren barruan ezartzen diren tresnak eta prozesuak adierazten ditu, bai eta zehaztutako helburuen eta ekintzen betetze-mailari buruz kontuak ematekoak ere.



Ildo horretan, eta erreferentziarako nazioarteko erakundeek Gobernantza Onerako ematen dituzten gomendioei jarraituz, Planaren gobernantza-mekanismoak ezarri dira, ondoren aurkezten ditugunak.

BARNE-BULTZADA ETA -INPLEMENTAZIOA

Gobernu Onaren, Herritarren Arretaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak bultzatuko du Plana. Zuzendaritza hori Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikita dago.

Gobernu Onaren, Herritarren Arretaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzak behar diren koordinazio- espazioak ezarriko eta dinamizatuko ditu, Foru-sail guztiek herritarren eta gizartearen partaidetza modu proaktiboan bultzatzen dutela bermatzeko, dagozkien kudeaketa-arloetan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-ereduaren aplikazioan homogeneotasuna bermatuko duten jarraibide korporatiboak jarraituz.

JARDUEREN URTEKO MEMORIAK


Urtero, memoria bat egin eta argitaratuko da, eta bertan Plan honen esparruan garatu diren jarduera nabarmenak zehaztuko dira.

EBALUAZIOA

Urteko memoriez gain (funtsean deskriptiboak izango direnak), izaera formaleko 2 ebaluazio egingo dira:

Tarteko ebaluazioa, 2025eko abenduan, 2026/03/31 baino lehenago argitaratuko dena.

Amaierako ebaluazioa, 2027ko abenduan, 2028/03/31 baino lehenago argitaratuko dena.



www.bizkaia.eu/
eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza



HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO FORU PLANA

2024 - 2027